



Lurraren bihotzerainoko bidaia



Artxandako tunelean atzo hartutako irudia, kanpoaldean langileak ikusten direla.

XOUSA SIMAL

Artxanda, Ugasko, Txorierri eta La Salve lotuko dituen autobidearen hiru tuneletan lanak egiten ari dira

EURITAKO horia soinean, gomazko botak oinetan eta kaskoa buruan igo ginen noranahiko ibilgailu batean. Artxanda inguruan autobidea egiten ari dira Bilborako sarrerak erraztu nahian, eta egin beharrekoak diren hiru tunelak eraikitzeko, mendiak zulatzen ari dira. Atzo obrak bertabertatik ikusteko parada izan genuen.

Guztira kilometro bi pasatxo baino ez dituzte eraikiko, baina, lanak ikusita, berrehun direla dirudi. Zulagailu erraldoiak, kamioilariak eta langileak nonahi aurki zitezkeen. Lehenengo tunela, Ugaskotik Txorierriaraino, 1.073 metrokoa izango da. Artxandakoa 1.190 metrokoa, eta aurreko bien arteko loturak, berriz, 589 metro izango ditu —Ugaskotik La Salvera joango

da—. Egun tunelen zulatze lanen heren bat dago eginda, baina Fernando Quijo obretako zuzendari tekniko eta gure noranahiko ibilgailuaren gidariak azaldu zigunez, datorren urteko uda hasi aurretik autobidea martxan jartzea espero dute. «Europistas-ek kudeatuko du, bidesari sinbolikoa izango du, eta ez dugu erabiliko erakunde publikoetako sosik».

«Halako azpiegiturak egin baino lehen, geologia azterketak egiten dira, baina tunelak zulatu arte ezin duzu inoiz jakin zerekin egingo duzun topo. Batzuetan ezusteak gertatzen dira, eta metro bat aurreratzen duzu; dena espero bezala ateraz gero, ostera, zortzi ere egin ditzakezu egun batean», argitu zigun lokatzez beteriko bidean behera gindoazela.

Lehenengo geltokia Artxanda-Txorierri izeneko tunela izan zen. Kotxetik jaitsi eta 42 neurriko boten barruan dantzan zebiltzan oinak lurrean ipinita, prakak lokatzez zikindu genituen denok. Langileen moduan tunelaren barruan barneratu eta, lurraren bihotzean bageunde bezala, makinaren zaratak, iluntasunak eta hezetasunak inguratu gintuzten.

Tunelaren alde bakoitzeko laser izpi gorriek filmetan agertzen diren polizia ausartak gogorarazten zizkiguten, baina teknikoek azalpenek gure irudimena zapuztu zuten: horma zuzen joateko seinaleak dira. Hurrengo geltokia leku historiko bat izan zen: gerra zibilaren aurreko urteetan egindako 60 metroko tunel baten arrastoak ageri dira Ugasko-La Salveko tunelaren ondoan.

Ordubete baino gehiago lokaztuta eta kotxean balantzaka aritu ostean, Artxandara bueltatu ginen. Etorkizuna eta historia batzen dituen Bilbora itzultzeko funikular zaharra hartu, eta helmugatik bertatik Guggenheim modernoa agertu zen berriro ere gure begien aurrean.

Kristina Martin
 ARTXANDA

 Bertso Hop - Bilintx Colon Pasealekua, 8 20302 IRUN Tel.: 943 63 17 26 - Faxa: 943 63 54 89 E-mail: bilintx-bertsoshop@jalgi.com	ORAIN DENAK BATERA INTERNET-EN  www.jalgi.com/megadenda	Herriak Poza lizentziatua, 11 48008 BILBO Tel.: 94 443 48 07 - Faxa: 94 422 20 83 E-mail: herriak@jalgi.com	 HERRIAK LIBURUDENDA
 Ramos Bergara, 6 20005 DONOSTIA Tel.: 943 42 63 50 - Faxa: 943 42 38 05 E-mail: ramos@jalgi.com		Xalem Baiona hiribidea, 52 / Golem eraikina 31008 IRUÑA Tel.: 948 17 55 38 - Faxa: 948 27 79 05 E-mail: xalem@jalgi.com	